



AUZO BILERAK 2024

AUZO: Elizalde

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2024/09/30	18:00	20:00

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Joana Mendiburu, Nora Velez, Ibintza Iragorri eta Ibon Mitxelena			
Herritarrak: 16	Euskaraz:		Elebitan:	
	Emakumezkoak: 6		Gizonezkoak: 10	
	<30 urte:	31-50 urte: 1	51-65 urte: 15	>66 urte:

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Batzarrean zehar landuko den gai zerrenda azaldu da.
Legealdi planaren jarraipena	<p>Lan ildo nagusi edo estrategikoen berri eman da.</p> <p>Legealdi planaren jarraipena eta urteko helburu nagusiak aurkeztu dira:</p> <p>2024:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ongizate saila Fermiñenera lekualdatu da. Elkarlanerako erraztasun handiak ekarri ditu horrek. Erabiltzaileak eta herritarrak gustura daude kokapen berriarekin.- Udaleko euskara plan berria idatzi da.- Oiartzun irratitari bultzada bat eman zaio. Herrian gai horretan adituak diren zenbait pertsona elkartu dira horretarako.- Euskara eta kulturartekotasuna sustatzeko programa abiatu da herriko ikastetxeetan. Gailu teknologien erabilera eginez herrira iritsi berriei harrera egiteko helburua du (guraso bileretan adibidez).- Aurten lehen aldiz mugaldeko udaleku ibiltariak antolatu dira. 30 bat gaztek parte hartu dute. Datorren urtean ere egiten jarraitzeko asmoa dago.



- Mugikortasun eta energia plana idatzi eta onartu dira.
- Lehen sektoreko doako ordezkapen zerbitzua martxan jarri da.
- Burujabetzen prozesua martxan jarri da. Aurten jardunaldiak antolatu dira Oiartzunen Udalbiltzarekin batera.
- Hirigintza aldetik plan ezberdinak daude martxan: Arraguan egingo diren 400 etxebizitzetako prozesu partehartzailea egin da. ELI6 eremuan ere 200 bat etxebizitza egingo dira. Horrekin lotuta, hirigintza ikuspegi feministatik
- Inbertsioetan. Futbol zelaia, bidegorriko azken tunela, Ugaldetxoko lotunea, Zurko baserriko bidezidorra eta Mendinekin ere. Bi lotura berri.

2025:

- Herritarren Arretarako gune berria martxan jarriko da. Lehen Sabadell-eko bankua zegoen lokalean egingo dituzte aurrerantzean herritarrek udalarekin lotutako gestioen gehiengoa.
- Mugikortasun plana eta energia plana (Rafael Pikabea...) gauzatzen hasiko dira.
- Atez atekoaren bilketa kudeaketan hobekuntzak egingo dira. Horretarako, Arraguan proba pilotu bat egingo da.
- Burujabetzen prozesuarekin jarraituko da. Mahaiak martxan jarriko dira jardunaldien ondoren.
- Hirigintza planak herritarrekin lantzen jarraituko dugu. Arragua, ELI6 eta Ugaldetxo.
- Musika eskola publikoa sortzeko parte-hartze prozesua egingo da. Aurten lanketa bat egin da.
- Liburutegia berritzeko parte hartze prozesuan lagundu. Eraikina berrantolatuko da, erakargarriago egin eta herritar guztien eskura jartzeko.
- Merkataritza txikia sustatzeko plana egingo da.
- Naturguneen azterketa egingo da, bioaniztasuna zaintzeko.
- Haur etorri berriek euskara ikasteko esperientzia pilotua martxan jarri nahi da. Hezkuntzarekin lantzen ari da gaia.



	<ul style="list-style-type: none"> - Inbertsioak: Altzibarko gune estalia, ikasketa gela berria, energian, ur hoditerian, mugikortasunean...
<p>Ordenantza fiskala eta aurrekontuak</p>	<p>ORDENANTZA FISKALAK</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ordenantza fiskalak hiru helburu izanik berritu dira:. - Errenten araberako ordenantzak, Klima aldaketaren aurkako neurriak saritu eta etxe hutsak merkaturatzeko hartu genitzakeen neurriak hartu. - %2 igoera tasetan eta KPI-%3,4. - Kohesio soziala zaintzeko, Aztikerrekin azterketa sozioekonomiko bat egin dugu Oiartzungo errealitatea ezagutzeko. - Kohesio soziala. 3975 bitzta unitate Oiartzunen. Familia errentari dagokionez. 50 familia, adin txikiko batekin <13.500€, 50 familia bi adin txikiko <13.500-26.000€. - <13.500€ errenta duten bizikidetzta unitateentzat udako igerilekuetarako prezio murriztu bereziak egon dira. - Trakzio mekanikoa familia ugarietara errentaren arabera. - Gainerako herrietan bezala, Oiartzunen biztanleriaren zahartzea ikusten da. >65, gorakoak 20 urteetan %8 igo da. Kiroldegian 65 gorakoak prezio murriztua izango dute, zahartze aktiboa bultzatzeko. - Ekonomiarekin lotutako datuak: %75ak zerbitzuetan egiten du lan, industrian gizon eta emakumeen arteko ezberdintasun handia. Nekazaritza eta abeltzaintzan gutxiengoak egiten du lan. Langabezia tasa % 5 inguru. - Transizio ekosoziala (energia, mugikortasuna eta hondakinak). Legeak energia kontsumoak % 35 jatsi behar ditugula eskatzen du. 15 eraikin nagusiak kontsumoaren %85aren erantzule dira. Elorsoro kiroldegia da Udalaren energia kontsumoaren %37a. Energiaren %32 energia berriztagarrietatik etorri behar da. Udalaren zuzeneko kontsumoa jaisteko neurriak. Ekonomia sektoreetan eta etxebizitzetan energia eraginkortasuna bultzatzea. Mugikortasun iraunkorraren aldeko neurriak. Klima aldaketaren inpaktuen jarraipena egin: ibaiak, natur-guneak, itzalak...

- Hobariak: Energia aprobetxamendu sistemak (eguzki panelak) jarriz gero %50eko hobaria izango da. Instalazioetan %95eko hobaria egongo da. A eta B energia-efizientzia lortzeko eraikuntza, instalazio edo obrak egin behar izanez gero, hobaria izango da, %95 eta %80 bitarte.
- Mugikortasun planean (2024-2028), 5 ildo estrategikotan jasotako 35 ekintza jasotzen dira: Oiartzungo ardatz aktiboak, garraio publikoa, kotxearen kultura murriztea, jarduera ekonomikorako eremuetan eragite eta hirigintza eta mugikortasuna.
- Mugikortasunarekin lotutako hobariak: etxebizitza komunitateetan bizikletak aparkatzeko gune berriak sortzeko obratan %95eko hobaria obren zergan. Interes publikoko obra izendatu beharko ditu plenoak. Trakzio mekanikoen zergako hobariak CO2 isurien arabera.
- Hondakinak: 7/2022 legea dator Europatik eta 2030erako % 70eko birziklatze tasa izan beharko dugu. Oiartzunen gaur egun %78ko birziklatzeko tasa dugu atez atekoari esker. Bakoitzak sortzen duen hondakinaren arabera tasak ordaintzera bideratuta dago legea eta gu ere bide horretara lerratzen hasiko gara. Beste helburua defizit 0 filosofia da. Tasekin ordaindu beharko da hondakinen kudeaketa. Gaur egun, 1.000.000€ finantziatu behar du tasetatik. Orain arte %60 kubritzen zuen tasak eta Udalak gainerakoa ordaintzen zuen. Udalak gastu hori nola murriztu aztertuko du. Aurten, hala ere, hondakinen tasa garestitu egingo da. Ondorengo izango da tasa: 4€/hilabetean, 56€/lauhileko eta urtean 168€. Gipuzkoako beste herriekin konparatuz 5 merkeen artean gaude, bilketa sistema dena delakoa dela. Defizit 0-rako, 200€ inguruko tasa beharrezkoa izango da etorkizunean.
- Etxebizitzak: ginkargua etxe hutsetan %100 izango da. Hobari berri bat %50eko hobaria izango da Bizigune edo ASAP programetan sartzen diren etxebizitzentzat.

UDALEKO AURREKONTUA

- 2025eko aurrekontua 20 milioi ingurukoa izango da.
- Sarrerak: Nagusiki Foru Aldundiko funtsez osatua da. Zergak % 33a. %17a tasak



	<ul style="list-style-type: none"> - Gastuak: Pertsonal gastuak gastuen herena dira (%34), diru laguntzetan %18. Gastu arruntak eta zerbitzuak %36,4. Inbertsio errealetarako %10,2.
<p>Auzoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Euskal Herria plazako hoditeria eta ur filtrazioak. Posible ziren neurriak konpondu dira. Belardietatik datozen filtrazioak oso zailak dira antzematen. - Trafikoa: Mugikortasun planak jasotzen ditu zenbait esku-hartze zentzu horretan. izar harategiko kalea, bi noranzko egitea begiratzen ari gara. Erdigunerako trafikoa murriztu nahi da. Erdigunera propio doana (anbulategia...), joan dadila. - Gurutzerako bidegorri zatian argiteria jasangarria da? Bai, jasangarria da. Asko argitzen duen baina oso gutxi kontsumitzen duen argiteria da. Dena dela, gaueko argitze-ordutegia murriztu zen. - Xanistebanetan arkupeak ixteko aukera. Itxi dira. - Arazo psikikoak dituztenentzat etxeak gorde daitezke? Bai, legez jasoa dago ezgaitasuna duten pertsonentzat etxebizitzak gordetzea promozio berrietan. - Egindakoak: <ul style="list-style-type: none"> o EH plazako hoditeria o Anbulategi azpiko kalea o ELI6 partehartzea feminista o Elizalde ikastetxea. Leihoak. Argiteria - Egitekoak: <ul style="list-style-type: none"> o Rafael Pikabea (Hipatia parkearen goiko aldea): Rafael Pikabea oinezko egitea eta Ugaldetxora lotura egokiagoa bizikletentzat. Oinezkoentzat espaloiak jarraikortasun gehiago izatea. o Kiroldegian inbertsioak egingo dira energia o Elizalde: Transpatioa eta argiteria lanak egingo dira <p>Bizilagunen galderak:</p>



- Partikular batek galdetu du ea etxebizitza bat partikularki jartzen baldin bada alokairuan, baldintzak betetzen baditu ea hobaria jasoko lukeen. Bi programa daude bat udaletik kudeatu eta bertan partehartzea aholkatu zaio.
- Hipatiako aparkalekuak nora mugituko diren galdetu dute. Ezezkoa erantzun zaie. Aparkaleku superabita daukagu Oiartzunen. Iparraldeko obra egin zenean, 70 aparkaleku kendu ziren. Madalensoro ireki zen, baina ez zen asko bete. Jendeak garajeak erabili zituen.
- Bidegorria hobetuko den galdetu dute: Argiteria eta azken tunela berritu. Lotuneak hobetuko direla esan da. Kiroldegiak sekulako gastua dauka horren kontra bidegorria hobetuko balitz kirola egiteko.
- Bidegorrian komunik ez dagoela komentatu da. Ergoien ez dago komunik. Karrikako bidegorrian, Altzibarko gune berrian egongo dela esan da. Komentatu da komunen inguruko azterketa bat egiten ari dela herrian. Denentzako egokiago dena.
- Killirikupe zergatik hainbeste denbora itxita? Promotore bat dago atzetik. Proiektua aurkeztua dago. Miren eta Killirikupe etxeen artean igogailu bat jartzea negoziatzen aritu dira, baina ez dute adostu. Killirikupek bere igogailua izango du. Aurreratzen ari dira. Zinkunegi da promotorea. Killirikupe publikoa da? Erabilera publikoa duen eremu pribatua da, erabilera publikoa behar du eta ahalik eta azkarren irekitzea izan behar du helburu. Negoziazioetan luzatu da itxiera.
- Arraskularren adokina oso gaizki dago. Soluzio bat behar du. Trafikoa handitu da eta adokinak gehiago hondatzen dira. Bakarrik goitik sartu daiteke eta orduan handitu da trafikoa. Asfaltatzea proposatzen du bizilagun batek, zatika ("Hormigon impreso"?). Aztertuko dugula esan da.
- ELI6ko proiektua zein egoeratan dagoen galdetu da. Lehen zirriborroa dagoela esan da. 200 etxebizitza. Beste inguru bat sortuko da herrian. Parte hartze prozesu bat martxan dago. Ekipamendu .Etxebizitza libreak, tasatuak eta alokairu sozialak. 3-4 solairukoak. Epeen inguruan galdetu dute. Ez da eremu konplikatu, ez da asko atzeratuko.



	<p>Arraguarekin batera joan daitekeela komentatu da. Pare bat urte hasteko.</p> <ul style="list-style-type: none">- Arragua, Ugaldetxo eta ELI6rekin herrian zenbaten jarriko den galdetu da? Etxebizitzen premia badagoela esan da. Gazteak badatozelako eta baten batzuk alde egin behar izan dutelako. Arraguan 400 (100+100+200 faseka), ELI6 dena batera. Promotoreekin negoziatuko da denboran espaziatuak izatea, beharrak asetzen joateko. Alokairuan etxebizitza asko izango da.- Urkabe baita nola dago? Dotazionalak izango dira. 5 urteetako alokairua izango da. Negoziatua eta plangintzatua dago. Atzealdeko bidea jaurlaritzak ordaindu behar du eta horretarako aurrekontuetan izan behar du.- Aldaketa klimatikoari egokitutako promozioak izango dira? Beste herrialdeetan pentsatzen ari dira nola egokitu aldaketa klimatikoetara. Berdeguneak egongo direla esan da. Adibidez, arraguan, erreka azaleratuko da.- Familiaren azterketa sartzea eta ingurumena kontuan izatea oso interesgarria iruditu zaio herritar bati.- Oiartzunen biztanleria asko handituko da. Beldurra ematen du, horrenbeste handitzeak, mugikortasuna egokitu egin beharko da. Soluzioak pentsatzen hasi beharko gara.- Lanbarrenen arazoaren inguruan galdetu da. Zergatik ateratzen dira Lanbarrenen Arraguako kamioiak? Gasolindegia erreklamo dira. Ingeneritza bati eskatu zaio azterketa, ze kamio mota zenbat... aztertzeke. Era berean diputazioari irteera berri bat planteatu zaio Lanbarrenen. Diputazioak, plataforma intermodala, egin arte ez duela egingo esan du. Udal bezala gure proposamena bultzatuko dugu.- Kiroldegian 65> eta gazteak merkeago izatea zalantzan jarri du. Zaharragoak ekonomikoki egokiago daude eta agian adin tartean pentsatu beharko lirake. Gazteek ez lukete merkeago behar?- Autokarabanentzako araurik badago? Kotxe batek espazio bat okupatu dezake eta autokarabanak hori baino gehiago okupatzen du. Eskatu
--	---



	izan da autokarabanak aparkatzeko gunea. Ez dugu uste udalak honi erantzun behar duenik.
Itxiera	Burujabetzetako parte-hartze prozesuaren eta burujabetza jardunaldien berri eman da. Batzarra baloratzeko orria banatu da. Asistentzia orrian jasotako posta elektronikoetara gaurko akta bidaliko dela gogorarazi da.

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9
bilera ongi gidatu da	9
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	9
Auzotar kopurua	3
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	7
Saioa probetxugarria izan al da?	8
Egunaren egokitasuna	8
Orduaren egokitasuna	8
Lekuaren egokitasuna	8